


H_{LH3}

2017/2018



Zuzenketarako Koaderno

Izen-deiturak

Ikastetxea

Taldea

Herria

Data


Irakurmena

LHko 3. maila



1. zatia

Probaren lehen zati hau
egiteko 45 minutu dituzu.



Jarraibideak

Proba honetan testu bat irakurriko duzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Ondoko 4 urtarotatik, zein da hotzena?

- A. Udaberria.
- B. Negua.
- C. Uda.
- D. Udazkena.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Ondoko 4 urtarotatik, zein da hotzena?

- A. Udaberria.
- B. Negua.
- C. Uda.
- D. Udazkena.

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?

.....

Galdera batzuk errazak dira eta beste batzuk zailagoak. Galderaren bat ulertzen ez baduzu, besteei erantzuten segitu ahal duzu, eta geroago, saiatu erantzun gabe utzitakoa egiten.

AMONA ZERGATIK?

Ama Lucía eta amatxo Garazik lan egiten dutenean amonaren etxera joaten naiz sarri. Amonarekin ezinezkoa da gaizki pasatzea. Edozein gauza galdetuta ere beti du erantzun dibertigarriren bat. Horregatik, galdera asko egiten dizkiot nik.

- Amona... bakarrik bizi bazara, zergatik duzu horren mahai handia?
- Otorduetan txikiegia dela pentsatzen dut bada nik!
- Amona... zure hankak zergatik dira horren handiak?
- Ez direlako hankak soilik, familia handi bati eusten dioten zutabe bi baizik.
- Amona... zergatik ibiltzen zara horren poliki?
- Poliki ni? Mundua da azkar dabilena beti.
- Amona... zergatik duzu bizkarra oker?
- Ez dut oker, makurtuta ibiltzen naiz erortzen denari altxatzen laguntzeko.
- Amona... zergatik daramazu euritakoa baldin badago zerua urdin?
- Edozein momentutan egon daitekeelako eguna alda dezakeen ezustekoren bat.
- Amona... eta zergatik duzu ile gorria?
- Egun grisetan ere, irribarrea eragiteko gai naizelako honekin.
- Amona... makuluaren beharra duzu ibilaldi luzeetan lurrera ez erortzeko?
- Bai zera, makuluak urrunekoa gerturatzeko balio dit!
- Amona... zergatik duzu horren tripa handia?
- Tripa handia nik? Bai zera! Nekatuak zaudetenean eroso atsedean hartzeko kuxinak daramatzat alkandora azpian.
- Amona... zergatik dituzu zimurrez beteak ezpainak?
- Muxu gehiegi eman ditudalako ziurrenik.



Egunak daramatzat amonari jarraitzen; bere keinu txikienak ere aztertzen eta... ziur nago praka eta alkandora azpian amonak elastiko estuak ezkututzen dituela.

Nirea ez baita amona arrunta...

Ez, ez... nirea...

Nirea, super amona da!!! Eta zurea???



1. Nortzuk dira Ama Lucía eta amatxo Garazi?

- A. Kontatzailearen amonak.
- B. Kontatzailearen amak.
- C. Kontatzailearen lagunak.
- D. Kontakizuneko protagonistak.

2. Zergatik pasatzen du horren ongi amonarekin?

- A. Galdera asko egiten dizkiolako.
- B. Amona bakarrik bizi delako.
- C. Beti duelako erantzun dibertigarriren bat.
- D. Berea super amona delako.

3. Nolakoa da amonaren mahaia?

- A. Amonarentzat handia.
- B. Haurarentzat txikia.
- C. Ertaina.
- D. Otorduetan txikiegia.

4. Amonaren hankak...

- A. Txikiak dira.
- B. Familiaren bi zutabeak dira.
- C. Ez dira hankak.
- D. Oso handiak dira.

5. Idatzi 1etik 3ra dagokion zenbakia, ezkerreko eta eskuineko osagaiak lotzeko eta ideiak osatzeko:

	Zenbakia	
AMONA	3	(1) Azkar ibiltzen da.
MUNDUA	1	(2) Jendea altxatzen laguntzen du.
AMONAK	2	(3) Poliki ibiltzen da

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Hiru loturak zuzen.

6. Zergatik eramango du amonak euritakoa zerua urdin badago?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Honen antzeko zerbait: <i>"Edozein momentutan egon daitekeelako eguna alda dezakeen ezustekoren bat"</i>

7. Zeri buruz ari da amona” egun gris bat” esaten duenean?

- A. Triste gauden egun bati buruz.
- B. Lainotuta dagoen egun bati buruz.
- C. Neguko egun bati buruz.
- D. Irribarretsu gauden egun bati buruz.

8. Zertarako da benetan amonaren “makulua”?

- A. Urrunekoa gerturatzeko.
- B. Amona jolasteko.
- C. Amona nekatzeko.
- D. **Amonari ibiltzen laguntzeko.**

9. Amonaren tripa handia...

- A. gezurrezkoa da.
- B. kuxinez egina dago.
- C. **kuxinak balira bezala erabiltzeko da.**
- D. amonak atsedean hartzeko da.

10. Idatzi kontakizuneko amonaren bost ezaugarri.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Hauetako bost: <i>“Dibertigarria da, hanka handiduna, poliki ibiltzen da, bizkarra okertua du, makulua erabiltzen du, euritakoa eramaten du beti, ile gorria du, tripa handia du, ezpain zimurdunak ditu, super amona da”.</i>

11. Bilobaren ustez, zer gordetzen du amonak arropa azpian? Adierazi X batez egia ala gezurra den.

	EGIA	GEZURRA
Super amonaren jantziak.	X	
Atsedean hartzeko kuxinak.	X	
Ez du ezer gordetzen.		X
Bere tripa handia.		X

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Lau erantzunak zuzen.

12. Ze beste izenburu jarriko zenioke kontakizunari?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Amonarekin, bilobarekin edo bien arteko harremana edo elkarrizketekin zerikusirik EZ duena.
1	Amonarekin, bilobarekin edo bien arteko harremana edo elkarrizketekin zerikusia duena.

13. Zertaz dago konbentzituta kontakizuneko haurra?

- A. Zurea super amona dela.
- B. Berea super amona dela.
- C. Berea amona arrunta dela.
- D. Muxu gehiegi ematen dituela amonak.



HEMEN BUKATZEN DA LEHENENGO ZATIA

**Ez pasa hurrengo orrialdera
irakasleak esan arte.**

H_{LH3}

2017/2018



Zuzenketarako Koaderno

Izen-deiturak

Ikastetxea

Taldea

Herria

Data


Irakurmena

LHko 3. maila



2. zatia

Probaren lehen zati hau
egiteko 45 minutu dituzu.





GALTZAGORRI

GALTXAGORRI

BESTE IZEN BATZUK: MAMUR, MAMARRO, PRAKAGORRI, GAIZKIÑAK, MOZORRO, BESTEMUTILLAK, FARMERIJALEAK, ENEMIGUILLOS, XIMELGORRI ...



Galtza gorritz jantzitako gizontxo txiki-txikiak dira galtxagorriak. Bizkorrak, biziak, onak eta jostalariak dira jeinu laguntzaile hauek. Jabeak orratzontzi edo kutxatxo batean izaten ditu, eta bere esanetara daude edozein lanetan laguntzeko, lan hori sinesgaitza izanda ere. Bizileku duten orratzontzia irekitzean, nagusiaren buru inguruan biraka hasten dira zer egitea nahi duen etengabe galdezka. Jabeak agindutako lanak egiten egoten dira gauez, eta, etxekoen pozerako, hurrengo goizerako amaituta izaten dituzte lanak.

San Joan bezperako gauean, sasi baten gainean, orratzontzia edo bestelako ontzi bat utziz gero, Galtxagorriak bertara etortzen dira, eta haien jabe egiten zara.

Igarleek, aztiak edo petrikiloek sinesgaitza den zerbait egiten dutenean, esan ohi da Galtxagorrien laguntza izan dutela.



(Moldatua)

14. Zer dira Galtzagorriak?

- A. Bizkorrak, biziak, onak eta jostalariak.
- B. Galtza gorritz jantzitako gizontxo txiki txikiak.
- C. Igarleak aztiak edo petrikiloak dira.
- D. Galtzagorrien laguntza jasotzen dutenak.

15. Zein da Galtzagorrien egitekoa?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Honen antzeko zerbeit: <i>"Gizonei edozein lanetan laguntzea, lana sinezgaitza izanda ere".</i>

16. Ordenatu 1etik 4ra zenbakiak jarriz, Galtzagorriek nola burutzen duten lana.

4	Nagusia eta etxeakoak pozik daude.
3	Lana gauzez amaitzen dute eta orratzontzira bueltatzen dira.
2	Nagusiak beraien bizilekua den orratzontzia irekitzen du.
1	Galtzagorriek ze lan egitea nahi duen galdetzen diote nagusiari.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Zenbakiren batekin okertu dira.
1	Lau zenbakiak zuzen.

17. Idatzi Galtzagorriek (edo Galtxagorriek) hartzen dituzten beste 6 izen.

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Hurrengoetako sei: MAMUR, MAMARRO, PRAKAGORRI, GAIZKIÑAK, MOZORRO, BESTEMUTILLAK, FARMERIJALEAK, ENEMIGUILLOS, XIMELGORRI

18. Zer esan nahi du “sinesgaitza” hitzak?

- A. Ezinezkoa dela sinestea.
- B. Oso erraza dela sinestea.
- C. **Oso zaila dela sinestea.**
- D. Beste zer bait.

19. Non aurkitu dugu testu hau?

- A. Mitologiako liburu batean.
- B. **Euskal Mitologiaren Atarian.**
- C. Ipuin batean.
- D. Testuan **EZ** du esaten.



ETXE BITAN BIZI NAIZ, ETA ZER?

MIREN AGUR MEABE

Informazio orokorra Biografia Bibliografia

Hemeroteka

ETA ZER?

Haur literatura

Erosi : 8,35 €

Datu teknikoak

Sara, liburu honetako pertsonaia, etxe bitan bizi da orain. Gehienetan amarekin eta batzuetan aitarekin. Bietan dauka, ordea, bere tokia, bietan bere txokoa, eta asko maite dute bietan. Lehen, etxe bakar batean bizi zen, aita eta ama ere etxe bakar batean bizi zirelako. Baina gurasoak banandu zirenetik aita etxe batean bizi da eta ama bestean; Sara, berriz, bietan. Gurasoak apartatu zirenean, Sara kili-kolo ibili zen, erabat galduta, bere ordu arteko mundua guztiz aldatu zelako. Baina orain egoera berrira ongi moldatu da, gurasoak banandu arren, ondo moldatzen direlako euren artean, eta Sarak badakielako bien etxean duela bere tokia, eta bien etxean duela maitasuna. **Miren Agur Meabe**k maisutasunez eta sentsibilitate handiz hurbildu da gaur egun etxe askotan bizi den auzi honetara: gurasoen banaketa eta horrek haurrei eragiten dizkien nahasteak eta arazoak. Ikuspegi baikorretik begiratzen dio auziari, fintasunez beti, gurasoen banaketaren eta horren ondorioen aurkiak eta infrentzuak agerian jarriz. Aipatzekoak dira Jokin Mitxelenaren marrazkien bizitasuna eta dotoretasuna. Testua edertasunez girotzen jakin du Jokinek.



20. Non bizi da orain Sara?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Honen antzeko zerbait: "Bi etxetan bizi da Sara".

21. Zergatik ibili zen Sara kili-kolo?

- Bere mundua guztiz aldatu zelako.
- Gurasoak bi etxetan bizi zirelako.
- Bi etxetan maitasuna duelako.
- Gurasoak ondo moldatzen direlako.

22. Baina orain Sara...

- A. egoera berrira ondo moldatu da.
- B. erabat galduta dabil.
- C. maitasunik gabe gelditu da.
- D. gehienetan aitarekin egoten da.

23. Miren Agur Meabe...

- A. liburuko marrazkien egilea da.
- B. Sararen ama da.
- C. Jokin Mitxelenaren bikotea da.
- D. liburuaren egilea da.

24. Idatzi 1etik 3ra dagokion zenbakia, zuzenak direnak lotzeko.

	Zenbakia	
Sararen gurasoak...	2	(1) ...gurasoak ondo moldatzen direlako.
Sarak...	3	(2) ...bereizita daude.
Sara ondo dago...	1	(3) ...bi etxeetan du tokia eta maitasuna.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Hiru loturak zuzen.

25. Non aurkitu dugu testu hau?

- A. Egunkari batean.
- B. Aldizkari batean.
- C. Liburu batean.
- D. Interneten.

Aitorrek *marimutil* deitu dit gaur jolas-orduko futbol partidan. Batzuk isilik gelditu dira eta besteek barre egin dute... Nahigabetua sentitu naiz, guztiek baitakite bera baino hobea naizela futbolean. Denek pasatzen didate baloia eta golak sartzen ditut. Berak, ordea, ez du golik sartzen eta amorratua dago horregatik. Eta hori talde berekoak izanda ere!!!



26. Nori esaten zaio “marimutila”?

- A. Mutila den neskari.
- B. **Ustez mutilenak diren gauzetan trebea den neskari.**
- C. Futbolean ona den neskari.
- D. Mutila izan nahi duen neskari.

27. Zergatik deituko du “marimutil” Aitorrek Leire?

- A. **Inbidia diolako.**
- B. Ile motza duelako Leirek.
- C. Bere futbol taldean nahi duelako Leire.
- D. Leirek baloia pasatzen **EZ** diolako.

28. Zergatik nahigabetu da Leire?

- A. Aitorrek bakarrik sartzen dituelako golak.
- B. **Aitorrek iraindu egin duelako.**
- C. Ez badirudi ere, Aitor baino hobe delako futbolean.
- D. Aitorrek berari baloia pasatzea nahi duelako.

29. “Batzuk isilik geratu dira eta besteak barre egin dute...:”

- A. Aitorrekin ados daudelako.
- B. Aitor oker dagoelako.
- C. **Aitorrekin liskarrik EZ izateko.**
- D. Leire neska delako.

30. Izenburua falta zaio komikiari. Zein jarriko zenioke?

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Izenburuak ez du testuarekin zerikusirik.
1	Honen antzekoren bat: “Marimutilla”, “Futbolean ona den neska”, “Aitorrek inbidia du”, “Leire oso ona da futbolean”...

31. Aitorrek...

- A. Leirek baino hobeki jokatzen du.
- B. **portaera okerra du Leirerekin.**
- C. neska izan nahiko luke.
- D. Leirerekin jolastu nahi du.

32. Adierazi X batez egia ala gezurra den.

	EGIA	GEZURRA
Leirek mutila izan nahi du.		X
Leireri futbola gustatzen zaio.	X	
Leirek ile motza du.	X	
Leire ona da futbolean.	X	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1 edo 2 zuzen.
0,5	3 zuzen.
1	4 zuzen.

Lehen Hezkuntzako 3. maila				
Irakurmena				
	Galdera	Mota	Erantzun zuzena	Gehienezko puntuazioa
AMONA ZERGATIK?	1	Itxia	B	1
	2	Itxia	C	1
	3	Itxia	D	1
	4	Itxia	B	1
	5	Irekia	-----	1
	6	Irekia	-----	1
	7	itxia	A	1
	8	Itxia	D	1
	9	Itxia	C	1
	10	Irekia	-----	1
	11	Irekia	-----	1
	12	Irekia	-----	1
	13	Itxia	B	1
GALTZAGORRI	14	Itxia	B	1
	15	Irekia	-----	1
	16	Irekia	-----	1
	17	Irekia	-----	1
	18	Itxia	C	1
	19	Itxia	B	1
ETXE BITAN BIZI NAIZ ETA ZER?	20	Irekia	-----	1
	21	Itxia	A	1
	22	Itxia	A	1
	23	Itxia	D	1
	24	Irekia	-----	1
	25	Itxia	D	1
MARIMUTIL	26	Itxia	B	1
	27	Itxia	A	1
	28	Itxia	B	1
	29	Itxia	C	1
	30	Irekia	-----	1
	31	Itxia	B	1
	32	Irekia	-----	1
			Osotara	32